# ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK

## ODON DE APRAIZ IKASTOLA

**2017 2018**




ORGANIZA

ODON DE APRAIZ IKASTOLA

IGE A.M.P.A
ZOKOZORRI
Odon de Apraiz Ikastola

FINANCIA

IGE A.M.P.A
ZOKOZORRI
Odon de Apraiz Ikastola

Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

## IZENA EMATEKO EPEA

| INSKRIPZIO OFIZIALAK | TOKI LIBREAK |
|---|---|
| 5tik → 2017ko EKAINAREN 16ra | 11tik → 2017ko IRAILAREN 15ra |

2017  2018

## ESKOLAZ KANPOKO EKINTZEN FUNTZIONAMENDUA

- Eskolaz kanpoko ekintzak ikastolan bertan garatzen dira baina, ikastolako ordutegitik kanpo eta era ludiko, entretenigarri eta atsegin batean antolatzen dira. Kirola eta aisia EUSKARAZ bizitzeko aukera ematen dute. Ikastolan garatzen den lan hezigarriaren jarraipena da, hori dela eta, eskolaz kanpoko ekintzak ikastolaren eta Guraso Elkartearen artean diseinatzen dira.

- Ekintza guztiak MISTOAK dira.

- Parte hartzeko, derrigorrezkoa da Guraso Elkarteko bazkide izatea.

- Eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzaile kopuru minimo eta gehienezko kopuru bat egongo da.

- Ikasle gehiago apuntatuta badaude eskainitako lekua baino eta ezinezkoa izango balitz bi talde egitea, onarpen ordena honako hau izango litzateke:
  1 Ekintza errepikatzen dutenek.
  2 Izen ematearen ordenaren arabera.

- Eguerdiko ekintzak jantokian dauden umeentzako dira.

- Guraso Elkarteak eskubidea dauka behar izanez gero, ekintzak arautzen dituzten oinarriak aldatzeko ekintzen funtzionamendua hobetzeko.

## EKINTZAK NORENTZAT DIRA

Ekintzak Lehen Hezkuntzako ikasleentzat dira eta eskaintzen dira adinaren arabera, ikasleen helburuak eta gaitasunak kontuan hartuta. Hala ere, ekintza batzuk elkar izango dira



| 1º ZIKLOA | $2^{en}$ ZIKLOA | $3^{en}$ ZIKLOA |
|---|---|---|
| 1º eta $2^{en}$ | $3^{en}$ eta $4^{en}$ | $5^{en}$ eta $6^{en}$ |

## ORDUTEGIA

Eguerdian
14:00etatik 14:55etara (55´)

Arratsaldean
17:00etatik 18:00etara (60´)

## HASIERA ETA AMAIERA

2017ko URRIAREN 2an → 2018ko MAITZAREN 31an

Irailean zehar bilera bat egingo da eta bertan ekintza guztien informazioa banatuko da (egutegia, programa, ordainketen datak...)

## ESKOLAZ KANPOKO EKINTZEN KUOTA

- Urteko kuota 1, 2 edo 3 epeetan ordaindu daiteke, familia bakoitzak erabakitzen duen epeetan.
- HAVE FUN WITH ENGLISH eta SCRATCH 3D ekintzak hileroko kuota ordaindu daiteke
- Onartuko da bi egunetako ekintzetara egun bakar batean etortzea, baina kuota guztia kobratuko da.
- Urritik aurrera ekintza uzten bada, ekintza horren urteko kuota osorik ordaindu beharko da.
- Erretserbaren kuota azken ordainketaren kuotatik kenduko da.

## IZENA EMATEKO ERA ON-LINE IZANGO DA

**www.zokozorri.eus** web orrian sartu eta inprimakia bete.
ERNE! INPRIMAKI BANA BETE BEHAR DA IKASLE ETA EKINTZA BAKOITZEKO.
Izen-emateko epea amaitutakoan, ekainaren 21etik 23ra, posta elektronikoz edota sms batez jakinaraziko da:
1 Ikaslea onartua izan den edo ez ekintzan.
2 Ikasle kopuru minimoa dagoen taldea aurrera ateratzeko edota irailera arte itxaron behar den toki libreetan ikasle kopuru minimoa egoteko taldea atera dadin.

## GARRANTZITSUA!

## TOKIAK ERRESERBATZEKO

- Ekainean ikaslea ekintzan onartua izan dela jakitearekin batera, tokia erreserbatzeko 20€-ko ordainagiria pasako da ekintza eta ikasle bakoitzeko.
- Diru hori ekintza bakoitzeko azken kuotatik deskontatuko da.
- Behin tokia erreserbatuta, plazari uko eginez gero, diru hori EZ da bueltatuko.
- Plaza erreserbatzeko zenbatekoa ordaindu ezean, ez da tokia erreserbatuko.

## KIROL AURREKO EKINTZA/ MULTIKIROLA



Ekintza honen bidez, ikasleek lehen urratsak eman ahalko dituzte etorkizunean praktikatuko dituzten kiroletan. Hasieran era ludikoan hasiko dira kirol ezberdinak ezagutzen, hala nola: errugbia, frontoiko kirolak, herri kirolak, hockeya, eskubaloia, aerobica, gimnastika, badmintona...

| 1º ZIKLOA 1º ta 2$^{en}$ | 2$^{en}$ ZIKLOA 3$^{en}$ ta 4$^{en}$ | |
|---|---|---|
| ASTELE. OSTI. | ASTEAR. OSTE. | |
| 3 EPE | 2 EPE | EPE 1 |
| 40€ | 60€ | 120€ |

Hilean behin, larunbatetan, beste eskola batzuekin antolatzen diren kirol topaketetan parte hartzen da. Topaketak debaldekoak dira (izotz pistan, igerilekuan, atletismokoa, eskaladakoa, frontoiko kirolak, jolas kooperatiboak...)

## SASKIBALOIA



Teknika eta taktika landu, talde lana, errespetua eta laguntasuna bultzatuko da.

3. zikloko ikasleek, nahi izanez gero, ligan lehiatzeko aukera izango dute larunbat goizeetan. Epaileen ordainketak familia guztien artean egin beharko da.

| | 2$^{en}$ ZIKLOA 3$^{en}$ ta 4$^{en}$ | 3$^{en}$ ZIKLOA 5$^{en}$ ta 6$^{en}$ |
|---|---|---|
| | ASTELE. / OSTI. | |
| 33EPE | 2 EPE | EPE 1 |
| 40€ | 60€ | 120€ |

## ESKALADA

LARUNBATAK — LARUNBAT 1 15an BEHIN — BERRIA



Larunbat goiz bat hamabostean behin, 10 haurreko taldeetan banatuta, eskalatzeko aukera izango dute adin eta mailaren arabera. Hegoalde eta Ariznabarrako udal rokodromoetan izango da ekintza. Eskalatzeko beharrezkoa den materiala ekintzaren barnean dago (katu oinak kenduta).

| 1º ZIKLOA 1º ta 2$^{en}$ | 2$^{en}$ ZIKLOA 3$^{en}$ ta 4$^{en}$ | 3$^{en}$ ZIKLOA 5$^{en}$ ta 6$^{en}$ |
|---|---|---|
| LARUNBAT BAT 15an BEHIN | | |
| 10-11.30h | 11.30-13:00h | |
| | | EPE 1 |
| | | 60€ |

## GAZTE-PATINAK



Kirol honen bidez, irristaketako teknikak ezagutuko dituzte: oinarrizko desplazamenduak, balaztatu, salto egin... Oreka, norabide aldaketak, koordinazioa eta slaloma lantzeko ariketa eta jolasak proposatzen ditugu.
Ikasle bakoitzak derrigorrez ekarri beharko ditu patinak, kaskoa eta babesak.

| 2$^{en}$ ZIKLOA 3$^{en}$ ta 4$^{en}$ | 3$^{en}$ ZIKLOA 5$^{en}$ ta 6$^{en}$ |
|---|---|
| ASTEAR. / OSTE. | |

| 3 EPE | 2 EPE | EPE 1 |
|---|---|---|
| 40€ | 60€ | 120€ |

## XAKEA



Ekintza honen bidez, memorizazioa, gaitasun kognitiboak, buruketen ebazpena, irudimena eta erabakiak hartzeko gaitasuna landuko dute era ludiko eta hezigarri batean.

| 2$^{en}$ ZIKLOA 3$^{en}$ ta 4$^{en}$ | 3$^{en}$ ZIKLOA 5$^{en}$ ta 6$^{en}$ |
|---|---|
| OSTEGUNA | |

| 3 EPE | 2 EPE | EPE 1 |
|---|---|---|
| 20€ | 30€ | 60€ |

## GIMNASIA ERRITMIKOA

BERRIA



Gimnasia erritmikoa kirol modalitate bat da non balleta, gimnasia eta dantza uztartzen diren aparatu ezberdinak erabiliz sokak, uztailak, pilotak, mazak eta zintak. Ekintza hau Arabako Gimnasia Erritmikoko Federazioarekin batera antolatzen da Iparralde gizarte etxean.

| 1º ZIKLOA 1º ta 2$^{en}$ | 2$^{en}$ ZIKLOA 3$^{en}$ ta 4$^{en}$ | 3$^{en}$ ZIKLOA 5$^{en}$ ta 6$^{en}$ |
|---|---|---|
| ASTEARTEA / OSTEGUNA | | |

| 3 EPE | 2 EPE | EPE 1 |
|---|---|---|
| 40€ | 60€ | 120€ |

## MULTI EUSKAL PILOTA

BERRIA



Ekintza honetan frontoiko kirol ezberdinak praktikatuko dituzte era ludikoan, hala nola, esku pilota, zesta punta edota pala. Euskal Pelota Federazioarekin batera egingo dugu lan eta klub ezberdinekin.

| 1º ZIKLOA 1º ta 2$^{en}$ |
|---|
| ASTEAZKENA |

| 3 EPE | 2 EPE | EPE 1 |
|---|---|---|
| 20€ | 30€ | 60€ |

# GORPUTZ ADIERAZPEN-JARDUERA FISISIKOKO IBILBIDEA

## EUSKAL DANTZA



Aprender por medio de diferentes coreografías las danzas tradicionales vascas.
En caso de querer participar en los diferentes actos organizados por la federación se pagará la cuota correspondiente.
Se utilizarán los trajes de la Ikastola, al finalizar se tendrán que devolver.
Cada participante llevará sus medias y abarcas.

1º ZIKLOA
1º ta 2en

| ASTEARTEA / OSTEGUNA | | |
|---|---|---|
| 3 EPE | 2 EPE | EPE 1 |
| 40€ | 60€ | 120€ |

## ODON DANCING



Una actividad para trabajar la expresión corporal a través de la música mediante las coreografías y ritmos actuales (danza moderna, zumba, hip hop, batuka...)

2en ZIKLOA
3en ta 4en

| ASTEAZKENA | | |
|---|---|---|
| 3 EPE | 2 EPE | EPE 1 |
| 20€ | 30€ | 60€ |

# KULTURAL-ARTISTIKAKO IBILBIDEA ARRATSALDEKO EKINTZA

## GITARRA



Musikara hurbilduko dira gitarraren bidez. Akorde nagusiak eta instrumentua afinatzen ikasiko dute. Erritmoa ere landuko dute teknika desberdinez baliatuz.
Ekintza 4 pertsonentzako da.

2en ZIKLOA 3en ta 4en
3en ZIKLOA 5en ta 6en

| ASTELEHENA | | |
|---|---|---|
| 3 EPE | 2 EPE | EPE 1 |
| 30€ | 60€ | 120€ |

## ZERAMIKA

BERRIA



Ekintza honetan zeramikaren bidez garatuko da ikasleen gaitasun sortzailea, trebetasunak eta irudimenarekin jolastu ahal izango dute eskuak erabiliz. Buztinarekin lan egiteko fase guztiak ezagutuko dituzte: oraketa, modelaketa, apainketa, esmalteztaketa eta egosketa.

*Lehenengo ziklorako ESKULANAK eta ZERAMIKA tartekatuko da. Motrizitate mehea eta mardula landuko da teknika ezberdinen bidez.

| 1º ZIKLOA 1º ta 2en | 2en ZIKLOA 3en ta 4en | 3en ZIKLOA 5en ta 6en |
|---|---|---|
| ASTEAZ. | ASTEAR. | OSTI. |
| 3 EPE | 2 EPE | EPE 1 |
| 30€ | 45€ | 90€ |

## ODON-TXEF

90´ DE 17:00h A 18:30h



Elikadurara modu ludiko batean hurbilduko dituen proiektua ;hala nola, ohitura osasuntsuak hartzen lagunduko diena. Proiektua adin eta gaitasunen arabera egokituko da.

Ekintza Iparraldeko Gizarte etxeko sukaldean izango da.

Jardueraren amaieran, sukaldatutakoa dastatu edota etxera eraman ahal izango du ikasleak.

Jarduera ordu eta erdikoa izango da.
17:00etatik 18:30etara. (1.2.zikloan)14.45h 16.15h (3.zikloan)
1go ziklorako 10 partaide eta 2. edo 3. ziklorako 12 partaide

| | 1º ZIKLOA 1º ta 2en | 2en ZIKLOA 3en ta 4en | 3en ZIKLOA 5en ta 6en |
|---|---|---|---|
| | OSTI. | ASTELE. | ASTEAZ. |
| | 3 EPE | 2 EPE | EPE 1 |
| 1º ZIKLOA | 69€ | 103,5€ | 207€ |
| 2en 3en ZIKLOA | 57€ | 85,5€ | 171€ |

Kuotaren prezioan, materiala barne

## ZIENTZIA DIBERTIGARRIA



Tailerren bidez zientziara hurbilduko dira ikasleak. Haurren adin eta gaitasunei egokitutako jolas eta jardueren bidez (esperimentuen bidez), zientziaren inguruko interesa piztea izango da helburu.

| 1º ZIKLOA 1º ta 2en | 2en ZIKLOA 3en ta 4en | |
|---|---|---|
| ASTELE. | OSTE. | |
| 3 EPE | 2 EPE | EPE 1 |
| 50€ | 75€ | 150€ |

# 2.0 TEKNOLOGI EKINTZAK ARRATSALDEKO EKINTZA

## LEGO-ROBOTIKA



Proposamena pedagogia-programa bat ezartzea da; horretarako, LEGOren heziketa-ardatzeko materialak erabilita. Eskaintza , zikloen, adinen eta gaitasunen araberakoa izango da.

| 1º ZIKLOA 1º ta $2^{en}$ | $2^{en}$ ZIKLOA $3^{en}$ ta $4^{en}$ | $3^{en}$ ZIKLOA $5^{en}$ ta $6^{en}$ |
|---|---|---|
| ASTEAR. | OSTI. | ASTELE. |
| 3 EPE | 2 EPE | EPE 1 |
| 70€ | 105€ | 210€ |

1go eta 2.maila : LEGO-AVANT

Hainbat heziketa programa nahasten dira, sormenezko eraikuntza hizkuntza gaitasunak garatzeko eta beste aldetik trebetasun logikoak garatzeko gaitasun logiakoak hainbat dinamikaren bidez.

3. eta 4.maila : LEGO PROGRESS

Mundu errealeko zientzia proiektuen bidez, hala nola, ingeniaritza eta roboten teknologia eta programazioaren bidez, zientzia bizia izan dadin egin. Robotikaren mundu harrigarrian murgilduko da ikaslea, mekanismo eta egitura teknologikoen eraikuntzaren bidez.

5. eta 6.maila : LEGO MINDS

Robot aurreratua eta programazioan oinarritutako ekintza, ikaslearen irudimena indartuz eta pentsakera kritikoa piztuz.

## SCRATCH-3D INPRESIOA

BERRIA



Scratch blokeka programatzeko lengoaia bat da, animazioak eta bideo jolasak diseinatzeko egokia.
Ekintza honen bidez lortzen da pentsamendu logiko eta algoritmikoa garatzea, arazoak era metodiko eta ordenatu batean konpontzeko metodoak garatzea, ideia sinpleetatik abiatuta gauza konplexuagoak egitea eta programazioaren oinarriak ikastea.
3D inpresioa gehituko dugu, helburua da gaitasunak hobetzea, sorkuntza indartzea eta espazioaren eta denboraren pertzepzioa lantzea.

| 1º ZIKLOA 1º ta $2^{en}$ | $2^{en}$ ZIKLOA $3^{en}$ ta $4^{en}$ | $3^{en}$ ZIKLOA $5^{en}$ ta $6^{en}$ |
|---|---|---|
| ASTEARTEA / OSTEGUNA | | |
| 3 EPE | 2 EPE | EPE 1 |
| 91€ | 136€ | 272€ |

* Hileroko kuota 34€

mondragonLingua

## HAVE FUN WITH ENGLISH

BERRIA




MONDRAGON LINGÜAk eginiko proiektua da, ingelesez ekintza ezberdinak burutzeko aukera dago, disfrutatzeko eta oso ondo pasatzeko.

GARRANTZITSUA: ekintzan izena eman baino lehen, ezinbestekoa da proiektuaren azalpen hitzaldira joatea.

| | 1º ZIKLOA (1º ta 2en) | 2en ZIKLOA (3en ta 4en) | |
|---|---|---|---|
| | OSTE. | ASTELE. / ASTEAZ. | |
| | 3 EPE | 2 EPE | EPE 1 |
| 1º ZIKLOA | 45€ | 67,5€ | 135€ |
| 2en ZIKLOA | 91€ | 136€ | 272€ |

* Hileroko kuota
1º ZIKLOA: 17€
2en ZIKLOA: 34€

Lehenengo zikloan (1go eta 2. maila) ahozko komunikazioari erreparatuko diogu jolasen, eskulanen eta dantzen bidez, baita abestiak ikasiz, zein ipuinak irakurriz ere.
1.Zikloa osteguna kuota 135€

Bigarren zikloan (3. eta 4. maila) ikasleek britaniar kulturari, sukaldaritzari, antzerkiari, esperimentuei, istorioei eta musikari buruzko tailerrak burutuko dituzte.
2.zikloa astelehena, asteazkena kuota 272€ (hilean 34€)

## ODON-NEWS

Hirugarren zikloan (5. eta 6. maila) batez ere aldizkari eta irrati tailerrak egingo dira. Tailerak ingelesa hobetzeko eta hiztegi berria lortzeko era praktikoan eta dibertigarrian dira. Partaideek ez dute estutxea besterik eraman behar.

| 3en ZIKLOA (5en ta 6en) | | |
|---|---|---|
| ASTEAZKENA | | |
| 3 EPE | 2 EPE | EPE 1 |
| 45€ | 67,5€ | 135€ |

# ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK EGUERDIAN

**Adi!** Ekintza hauek jantokian geratzen diren umeentzako dira. Egunak kuadroan gehitzen dira

## ODON-NEWS

BERRIA




KUOTA **135€**

Aldizkari eta irrati tailerrak egingo dira. Tailerak ingelesa hobetzeko eta hiztegi berria lortzeko era praktikoan eta dibertigarrian dira. Partaideek ez dute estutxea besterik eraman behar.

## ANTZERKI-ESPRESIOA



KUOTA **60€**

Antzerkiak hainbat trebetasun garatzeko tresnak ematen ditu, hala nola, ahozko adierazpena, gorputz espresioa, buru azkartasuna, memoria, norberarenganako konfiantza,lotsa, errespetua, autokontrola... lantzeko aukera.
Antzezlan motz zein luzeak egingo dituzte, taldeko lana eta hausnarketa bultzatu eta sormena eta inprobisazioa landu.

## MIDFULNES / ERLAXAZIO



KUOTA **90€**

Jarduera honek onura handiak ekarriko dizkie ikasleei, kontzentrazioa hobetzen, sormenean, emozioak kontrolatzen eta baita lasaitasuna eta oreka lortzen ere. Beraien buruarekin seguruago sentitzen lagunduko die, eta pazientzia, enpatia, zintzotasuna... landuko dituzte.

## SCRATCH-3D INPRESIOA

BERRIA



2en ZIKLOA 3en ta 4en **129€**

3en ZIKLOA 5en ta 6en **272€**

Scratch blokeka programatzeko lengoaia bat da, animazioak eta bideo jolasak diseinatzeko egokia. Ekintza honen bidez lortzen da pentsamendu logiko eta algoritmikoa garatzea, arazoak era metodiko eta ordenatu batean konpontzeko metodoak garatzea, ideia sinpleetatik abiatuta gauza konplexuagoak egitea eta programazioaren oinarriak ikastea.

## ODON KANTUZ



KUOTA **60€**

NURAT GAZTE abesbatzarekin batera, abesten musikara gerturako dira era ludiko eta dibertigarri batean. Ekintzan landuko dira ahots-instrumentua, erritmoa, arnasketa teknikak, autokontrola...

## JOKO-TXOKOA

BERRIA



KUOTA **60€**

Euskaraz jolas ezberdinak ezagutuko dituzte. Jolas horien artean, jolas tradizionalak egongo dira (zapitxoa, partxisa, sagu txiki...), mimika jolasak, antzerkia...

## MAGIA

BERRIA



KUOTA **198€**

Ekintza honekin batera fantasia eta ilusioen munduan murgilduko dira. Magiarekin eta ilusionismoarekin hasierako kontaktua izango dute karta jokoen, ilusio optikoen, objetuen manipulazioaren, magnetismoaren, mentalismoaren... bidez.